


EGIA GOIENETXEA, Gotzon

Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara arduraduna
Elkano kalea, z/g
20004 Donostia
gegia@kultura.gipuzkoa.net

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 113-114]



1. Legeak izan duen eraginaz. 2. Legeak gaur egun duen egitekoaz. 3. Legearen etorkizunaz edo berrikuntzaz.

1. Legeak izan duen eraginaz

Eusko Legebiltzarrak 1982an onartutako Euskararen Legearekin, gure hizkuntza ordenamenduan hiru printzipio ezarri ziren:

- Ofizialtasuna: izan ere, euskara Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan da ofizial, gatzelerarekin batera.
- Diskriminazio eza: inor ezin da diskriminatua izan hizkuntza ofizialetako bat erabiltzeagatik.
- Berezkotasuna: euskara Euskal Herriko *berezko* hizkuntza da, nahiz horrek ondorio juridiko sakonik ez izan.

Printzipio horiek finkatzeak eragin positiboak ekarri dizkio euskal gizarteari, izan ere, hizkuntza eskubide bat aitortu zaie euskal hiritarrei, eta ondorioz herri administrazioak behartuta daude derrigorrezko hezkuntzaldian hizkuntza ofizial biak ikasteko aukera ematera. Ofizialtasun horrek, halaber, herritar orok administrazioaren aurrean euskaraz egiteko eskubidea barnebiltzen du.

Bestetik, inkesta soziolinguistikoek aditzera ematen dutenari jarraiki, euskaraz dakitenen kopuruak 1982tik 1996ra bitartean nabarmen gora egin duela ikus daiteke. Arrazoi horiengatik guztiengatik, Euskararen Legea oro har tresna baliagarria izan da euskararen erabilera esparru ofizial nahiz publikoetara hedatzeko, baina nolana ere kontuan hartu beharreko alderdirik ere azpimarratu behar da; esate baterako, administrazioa hizkuntz plangintzak zati txiki bat

besterik ez du hartu (Eusko Jaurlaritza, udalak eta aldundiak), eta kanpoan utzi ditu funtzionario gehienak (Osakidetza, Ertzaintza, Estatuko administrazio periferikoa, funtzio publikoa betetzen duten partikularrak, justizia administrazioa, enpresa publikoak, zerbitzu publikoak kontratu bidez kudeatzen dituzten enpresa pribatuak, eta abar).

2. Legeak gaur egun duen egitekoaz

Euskararen Legea printzipio orokorretara mugatzen da batik bat; hori dela eta, ez du hizkuntza plangintza aurrera eramateko moduko oinarri sendorik eskaintzen, eta babes juridiko gutxi ematen du. Horregatik, Euskal Funtzio Publikoaren Legean du bere oinarria administrazioaren alorrean euskararen erabilera bultzatzeko egin den guztiak, eta ez Euskararen Legean.

Esan beharra dago, halaber, maiz oker erabili izan direla tresna juridikoak, herri aginteek uste izan baitute legean lotu gabe gelditu ziren arazo asko hobeki konpon zitezkeela dekretu edo arau bidez, eta hori ez da egia.

Gainera, eta etengabe hizkuntza auzietan sarturik egon nahi ez badugu, legez arautu beharko lirarteke, besteak beste, administrazio barruko jardueraren hizkuntza, zerbitzu publikoak kudeatzeko xedea duten kontratuen hizkuntz xedapenak, udalen hizkuntz jarduera, eta abar.

Orain dela hamazazpi urte euskararen aldeko izan zitekeena, euskaraz jarduteko oztopo bihurtu daiteke orain. Hau da, esaterako, herri administrazioaren egintza guztietarako *elebitasun simetrikoa* ezarri zuen Euskararen legeak, zehazpen edo bereizketa gehiagorik egin gabe. Printzipio hau, jakina, euskaraz bizi nahi duten udalen xedearen aurka bihurtu daiteke orain.



3. Legearen etorkizunaz edo berrikuntzaz

Euskararen Legea duela hamazazpi urte indarrean sartu zenez geroztik, nabarmen aldatu dira euskal gizartea eta mundua. Hizkuntzaren ikuspegitik, hor dago, adibidez, Katalanaren Legea bera. Eraberritzeko aintzat hartu zituzten faktoreak gure herrian ere begi-bistakoak dira:

- Alde batetik, komunikazioaren teknologiek aurrerapauso itzela egin dute; hizkuntzen erabilera esparruak eta arauak hankaz gora jarri ditu berrikuntza teknologikoak. Badirudi hizkuntzen geroa informazio sare handietan ere jokoan egon daitekeela.
- Asko aldatu da egoera soziolinguistikoa ere, izan ere, euskaldun gehiago dago, alfabetatuagoak daude, gehiago dira hizkuntza kultur tresna gisa erabiltzen duten euskaldunak... Aldakuntza horiek, gainera, ez dira berdin gertatu ez euskal lurralde guztietan, ez adin talde guztietan, ez jarduera sektore guztietan, noski.
- Espainia Europako Batasunean sartua delarik, Europa mailako arauak biziki baldintzatzen dituzte jarduera publiko nahiz pribatu asko.

Aldakuntza horiek gogoan izanda, badirudi bistakoa dela legea berritzeko premia. Beste kontu bat da, ordea, legea berritzeko egokiera ona ote den; hau da, lege *on* bat ateratzeko unerik egokiena ote den. Jakina, ikusmolde politiko hutsera mugatuko bagina, *inoiz ez* da izango hizkuntz eztabaida foro parlamentarioetara eramateko une egokia. Hala eta guztiz ere, argi dago hizkuntz arazoez gehiago mintzatu beharra dagoela, bai Legebiltzarrean eta baita gizartean ere.

Garrantzi handikoa da, era berean, lege sektorial guztietan (udal legea, polizia legea, hirigintza arauak eta abar) hizkuntz trataera egoki bat lortzea. Beharbada, Euskararen Legea goitik behera berri edo erreformatzeko garai egokia ez bada, hizkuntz eskubideen babes juridiko sakonagoa lortzeko bidea izan daiteke hori. Nolanahi ere, aurrera egiteko bidea jarri behar zaie, *lege babesa* emanaz, euskaraz bakarrik edo nagusiki jardun nahi duten udal eta beste herri administrazioei.

Tresna juridikoak modu eragingarriagoan erabiltzeko ikasi eta asmatu beharra dago: lege maila behar duten hizkuntz arauak ez dira, gatazkaren beldur, gobernuaren dekretu edo maila apalagoko arauetara eraman behar. Izan ere, lege mailan konpondu gabe gelditzen dena, ezin daiteke gero adabakiz konpontzen saiatu.